

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari baimena ematen zaio Dekretu honetan ezarritakoa aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

Bigarrena.— Dekretu hau 2004-2005 ikasturtea hasten den egunetik aurrera sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko ekainaren 29an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
MARÍA ANGELES IZTUETA AZKUE.

Ale Gehigarri bereizian argitaratzen dira
aipaturiko eranskinak

Zk-6191

223/2004 Dekretua, azaroaren 23koa, Lanbide-Heziketa-tako Ikastetxe Integratuaren figura sortu eta arautzen duena.

Ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak, Koalifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzkoak, xedetzat hartu du Lanbide-Heziketaren, koalifikazioen eta egiaztapen edo aitopenen sistema integrala eratzea, gizartearen eta ekonomiaren eskariei eraginkortasunez eta gardentasunez erantzungo diena, prestakuntza-era desberdinak baliatuta.

Lege horrek bere 9. artikuluan ezarri duenez, lanbide-heziketak barne hartzen du prestakuntza-ekintza zenbait, pertsonak gauza izan daitezen dauden lanbideak behar bezala bete, lana edo enplegua eskuratu, eta gizarte-, kultura- eta ekonomia-bizitzan aktiboki parte hartzeko. Hortaz, bere baitan hartzen ditu hasierako lanbide-heziketari dagozkion irakaskuntzak, langileak laneratzeko eta birlaneratzeko ekintzak, baita enpresetan etengabeko prestakuntza xede dutenak ere, lanbide-gaitasunak eskuratu eta etengabe eguneratzeko modua izan dadin.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Se autoriza a la Consejera de Educación, Universidades e Investigación para dictar las disposiciones que sean precisas para la aplicación de lo establecido en el presente Decreto.

Segunda.— El presente Decreto entrará en vigor a partir de la fecha de inicio del curso académico 2004-2005.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 29 de junio de 2004.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ANGELES IZTUETA AZKUE.

En Suplemento aparte se publican
los anexos que se citan

Nº-6191

DECRETO 223/2004, de 23 de noviembre, por el que se crea y regula la figura de Centro Integrado de Formación Profesional.

La Ley Orgánica 5/2002, de 19 de junio, de las Cualificaciones y de la Formación Profesional tiene por objeto la ordenación de un sistema integral de Formación Profesional, cualificaciones y acreditación, que responda con eficacia y transparencia a las demandas sociales y económicas a través de las diversas modalidades formativas.

La Ley, en su artículo 9, establece que la formación profesional comprende el conjunto de acciones formativas que capacitan para el desempeño cualificado de las diversas profesiones, el acceso al empleo y la participación activa en la vida social, cultural y económica. Incluye las enseñanzas propias de la formación profesional inicial, las acciones de inserción y reinserción laboral de los trabajadores, así como las orientadas a la formación continua en las empresas, que permitan la adquisición y actualización permanente de las competencias profesionales.

Lanbide-heziketara benetan iritsi ahal izatea bermatu behar zaionez zenbait kolektibori, alegia, gazteei, jarduteko moduan dauden langileei, lanean ari direnei zein langabetuei, lege horrek oinarritzko antolamendu-leerroak ezarri dizkie Lanbide-Heziketako Ikastetxe Integratuei.

Lanbide Heziketako Euskal Plana garatuko bada, lanbide-heziketa emango duten ikastetxe-kopuru jakin bat beharko da, aski funtsatuta, Lanbide Heziketako Sistema Integratuaren ezinbesteko eginkizunak bermatzeko behar den gutxieneko egitura ziurtatzeko. Ikastetxeok nahikoa malgu eta moldakor izango dira, koalkifikazioa gehitzeko eta eguneratzeko programa guztiei eusteko modukoak, horiek hartzaile guztien esku jar daitezen, hala kokapenaren ikuspuntutik, nola barne-egituratzearenetik.

Beste alde batetik, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, bere 55.1 artikuluan, herri-ikastetxeen autonomia aipatzen du, baliabideak kudeatzeari dagokionez, eta ikastetxe bakoitzak bere kudeaketa-proiektua onartuko duela ezarri du. Era berean, berariazko Lanbide Heziketako irakaskuntza ematen duten bigarren mailako hezkuntzako ikastetxeek, arauz ezartzen denaren arabera, arautu gabeko Lanbide Heziketa eman ahal izango dutela. Lanbide Heziketako ikastetxe horietako kudeaketa-proiektuak, gainera, arautu gabeko lanbide-heziketari buruzko beharrezko alderdiak oharremango dituela, eta, horiei dagokienetarako, baita enpresekiko erlazioak ere.

5/2002 Lege Organikoak bere 11. artikuluko 4. paragrafoan ezarri duenez, Lanbide-heziketako Ikastetxe Integratutzat joko dira Lege Organiko bereko 10.1 artikuluko aipatzen dituen prestakuntza-eskaintza guztiak ematen dituztenak.

Beste alde batetik, 5/2002 Lege Organikoak bere 11. artikuluko 6. paragrafoan adierazi duenez, autonomia-erkidegoek euren berezitasunen arabera egokituko dituzte Lanbide-heziketako Ikastetxe Integratuen osaera eta eginkizunak.

Lege Organiko horren lehen xedapen gehigarriak Lanbide Heziketako irakasleen habilitazioaz edo gaitzuntzaz dihardu, eta lehen puntu honako hau ezarri du: Bigarren Hezkuntzako Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetako funtzionarioak, berariazko lanbide-heziketan euren zereginak betetzen jarrai dezaketen arren, Lege horrek arautu lanbide-heziketaren gainerako esparruetan ere aritu daitezkeela, duten profil akademiko eta profesionalaren arabera, eta eskumena duten administrazioek horretarako erabakiko dutena betez.

Lehen xedapen gehigarri beraren 2. puntuak, berriz, honako hau dio: Herri-administrazioetan Diharduten Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 3. artikuluko aurrez ikusi duenaren

El acceso eficaz a la formación profesional, que se ha de garantizar a los diferentes colectivos, jóvenes, trabajadores en activo ocupados/as y desempleados/as, hace que la Ley trace las líneas ordenadoras básicas de los Centros Integrados de Formación Profesional.

El desarrollo del Plan Vasco de Formación Profesional requiere la existencia de determinado número de centros que impartan formación profesional, con suficiente entidad para asegurar la estructura mínima que se necesita para garantizar las funciones primordiales del Sistema Integrado de Formación Profesional. Estos centros, deben poseer suficiente flexibilidad y versatilidad, de modo que sean capaces de dar soporte a todos los programas de incremento y actualización de la cualificación, poniéndola al alcance de todos sus destinatarios, tanto por su ubicación geográfica como por su estructuración interna.

Por otra parte, la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, en su artículo 55.1 se refiere a la autonomía en la gestión de recursos de los centros docentes públicos, estableciendo que cada centro aprobará un proyecto de gestión. Así mismo, los centros de educación secundaria con enseñanzas de Formación Profesional específica podrán, de acuerdo con lo que se establezca reglamentariamente, impartir Formación Profesional no reglada. En estos centros de Formación Profesional, el proyecto de gestión contemplará también los aspectos necesarios relativos a la formación profesional no reglada y, a estos efectos, las relaciones con las empresas.

La Ley Orgánica 5/2002 establece en su artículo 11 apartado 4, que se considerarán Centros Integrados de Formación Profesional aquellos que impartan todas las ofertas formativas a las que hace referencia el artículo 10.1 de la citada Ley Orgánica.

Por otra parte, la Ley 5/2002 en el citado artículo 11 apartado 6, señala que las Comunidades Autónomas adaptarán la composición y funciones de los Centros Integrados de Formación Profesional a sus características específicas.

La Disposición adicional primera de la citada Ley Orgánica, hace referencia a la habilitación del profesorado de formación Profesional. Así en el punto 1 de esta disposición adicional primera, se establece que los funcionarios de los Cuerpos de Profesores de Enseñanza Secundaria y de Profesores Técnicos de Formación Profesional, sin perjuicio de seguir desempeñando sus funciones en la formación profesional específica podrán desempeñar funciones en los demás ámbitos de la formación profesional regulada en esta Ley, de conformidad con su perfil académico y profesional y con lo que al efecto determinen las administraciones competentes.

En el punto 2 de esta Disposición adicional primera, se dice que a los efectos previstos en el artículo 3 de la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal Laboral al Servicio de las Admi-

ondorioetarako, interes publikokotzat joko dela pres-takuntza ematea, dituen esparru guztiak kontuan har-tuta.

Era berean, ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoa-ren bigarren xedapen gehigarriak ezarri duenez, profe-sional gaituak ere aritu daitezke lege horrek arautzen duen lanbide-heziketa ematen, baldin eta lanbide-koa-lifikazioei lotutako prestakuntzari egokitzen zaion profilik duen irakaslerik ez badago; betiere, dagozkion administrazio eskumendunek finkatutako baldintza eta erregimenaren arabera.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, Eusko Jaurlaritzaren Ahol-ku Batzorde Juridikoak aldeko irizpena eman duela, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2004ko azaroaren 23an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. *artikulua*.– Xedea.

Dekretu honen xedea da Euskal Autonomia Erkide-goko Lanbide-heziketako Ikastetxe Integratuak sortu eta arautzea.

2. *artikulua*.– Lanbide-heziketako Ikastetxe Inte-gratua. Definizioa.

Lanbide-heziketako Ikastetxe Integratua da lanbi-de-heziketako ikastetxe bat, publiko zein itunpekoa, Berariazko Lanbide Heziketa, Etengabeko Lanbide He-ziketa, eta/edo Lanerako Lanbide Prestakuntza eskaini eta ematen dituen; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztutako baldintzak betetzen ditue-na; eta, pertsonen koalfikazio- edo gaikuntza-beharrei, edota bere produkzio-inguruaren zein administrazioa-ren beharrei erantzuna ematearren, eredu propioa be-har duena, kudeaketa, antolamendu, funtzionamendu eta finantzaketari dagokienez.

3. *artikulua*.– Lanbide-heziketako Ikastetxe Inte-gratuaren eginkizunak.

Ondoko eginkizunak izango ditu Lanbide-hezike-tako Ikastetxe Integratuak:

– Lanbide Heziketako Euskal Planaren baitan, Eus-kal Autonomia Erkidegoan garatzen diren prestakun-tza-programetan parte hartzea.

– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin lankidetzan aritzea planteatu daitezkeen jarduera guz-tietan.

– Eusko Jaurlaritzako beste Sail batzuekin lankide-tzan aritzea, ikastetxearen eremuari lotuta proposa dai-tezkeen ekintza guztietan.

– Koalfikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuarekin lankidetzan aritzea.

– Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren Behatokia-rekin lankidetzan aritzea.

nistraciones Públicas, la impartición de la formación, en sus distintos ámbitos, tendrá la consideración de in-terés público.

Asimismo, la Disposición adicional segunda de la Ley 5/2002, de 19 de junio establece que la formación profesional regulada en esta Ley podrá ser impartida por profesionales cualificados, cuando no exista profesora-do cuyo perfil se corresponda con la formación asocia-da a las cualificaciones profesionales, en las condicio-nes y régimen que determinen las correspondientes Ad-ministraciones competentes.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Educa-ción, Universidades e Investigación, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en la sesión celebrada el día 23 de noviembre de 2004.

DISPONGO:

Artículo 1.– Objeto.

Es objeto del presente Decreto la creación y regula-ción de los Centros Integrados de Formación Profesio-nal de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 2.– Centro Integrado de Formación Profe-sional. Definición.

Centro Integrado de Formación Profesional es aquel centro de Formación Profesional, público o concertado, que oferta e imparte Formación Profesional Específica, Formación Profesional Continua, y/o Formación Profe-sional Ocupacional, que cumple los requisitos que se determinen por parte del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, y que, para dar respues-ta a las necesidades de cualificación de las personas, así como a las necesidades de su entorno productivo y/o de la administración, precisa de un modelo de gestión, or-ganización, funcionamiento y financiación propio.

Artículo 3.– Funciones de un Centro Integrado de Formación Profesional.

Las funciones que desarrollará un Centro Integrado de Formación Profesional, serán las siguientes:

– Participar en los programas de formación que se desarrollen en la Comunidad Autónoma del País Vas-co, en el marco del Plan Vasco de Formación Profesio-nal.

– Colaborar con el Departamento de Educación, Uni-versidades e Investigación en todas aquellas activida-des que se puedan plantear.

– Colaborar con otros Departamentos del Gobierno Vasco en cuantas acciones relacionadas con su ámbito se propongan.

– Colaborar con el Instituto Vasco de Cualificacio-nes y Formación Profesional.

– Colaborar con el Observatorio del Sistema Vasco de Formación Profesional.

- Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Eba-luatzeneko Euskal Agentziarekin lankidetzan aritzea.
- Enpresa-erakundeekin eta enpresekin lankidetzan aritzea.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sa-rearekin lankidetzan aritzea.
- Hezkuntza Laguntzarako Zerbitzuekin lankide-tzan aritzea.
- Etengabeko prestakuntzan edota lanerako presta-kuntzan diharduten erakundeekin lankidetzan aritzea.
- Lanbide Heziketako Ikastetxeetan kudeaketa in-tegraleko eredu berriak ezartzen laguntzea.

Eta araudiz finka daitezen beste eginkizun guztiak.

4. artikulua.– Ikastetxe Integratuek bete beharre-koak.

Koalifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekai-naren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 11. artikuluko 1. paragrafoaren arabera ezar daitezkeen oinarritzko be-tebeharrak gorabehera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak gutxieneko betebeharrak ezarriko diz-kie Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide-heziketako Ikastetxe Integratuei, ondokoak aintzat hartuta, betie-re:

- a) Lanbide-arloak eta Berariazko Lanbide Heziketa-ko heziketa-zikloen kopurua.
- b) Arautu gabeko prestakuntzako zenbat ordu eman, urteko.
- c) Kalitatearen sistema normalizatua, Kalitatea ku-deatzeko Europako EFQM eredua aintzat hartuko due-na.
- d) Lan Arriskuen Prebentziorako sistema normali-zatua.

5. artikulua.– Lanbide-heziketako Ikastetxe Inte-gratuaren aginte- eta partaidetza-organoak.

1.– Ondokoak dira titulartasun publikoko Lanbide-heziketako Ikastetxe Integratuen aginte-organoak:

- Ikastetxeko zuzendaria.
 - Ikasketaburua.
 - Idazkaria.
 - Kudeaketa Integralaren eta Estrategiaren alorre-ko zuzendaria.
 - Ekonomia eta Administrazio alorreko zuzendaria.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren men-deko langileek beteko dituzte kargu horiei dagozkien eskumenak.

1.1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila-ren mendeko ikastetxeko zuzendariaren eskumenak:

- Colaborar con la Agencia para la evaluación de la competencia y la calidad de la Formación Profesional.
 - Colaborar con organizaciones empresariales y em-presas.
 - Colaborar con la red de Ciencia, Tecnología e In-novación del País Vasco.
 - Colaborar con los Servicios de Apoyo a la Educa-ción.
 - Colaborar con entidades dedicadas a la formación continua y/o ocupacional.
 - Colaborar en la implantación de nuevos modelos de gestión integral en los centros de Formación Pro-fesional.
- Y cuantas otras funciones reglamentariamente se de-terminen.

Artículo 4.– Requisitos que deberán cumplir los Centros Integrados.

Sin perjuicio de los requisitos básicos que se esta-blezcan de acuerdo con el artículo 11, punto 1 de la Ley Orgánica 5/2002, de 19 de junio, de las Cualificacio-nes y de la Formación Profesional, el Departamento de Educación Universidades e Investigación establecerá los requisitos mínimos que deberán cumplir los Centros In-tegrados de Formación Profesional de la Comunidad Autónoma Vasca y que en todo caso se referirán a:

- a) Familias Profesionales y número de Ciclos Forma-tivos de Formación Profesional Específica.
- b) Número de horas/año a impartir de formación no reglada.
- c) Sistema normalizado de la Calidad que tenga co-mo referente el modelo europeo de gestión de Calidad EFQM.
- d) Sistema normalizado de Prevención de Riesgos La-borales.

Artículo 5.– Órganos de gobierno y participación de un Centro Integrado de Formación Profesional.

1.– Los órganos de gobierno de un Centro Integra-do de Formación Profesional, de titularidad pública, se-rán los siguientes:

- Director del Centro.
- Jefe de Estudios.
- Secretario.
- Director del Área de la Gestión Integral y de la Estrategia.
- Director del Área Económica y Administrativa.

Las competencias correspondientes a dichos cargos, se-rán desempeñados por personal dependiente del Depar-tamento de Educación, Universidades e Investigación.

1.1.– Competencias del Director del Centro depen-diente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación:

a) Ikastetxearen ordezkariak ofiziala egitea, gainerako hezkuntza-administrazioen eskuduntzen kaltetan gabe.

b) Ikastetxearen jardura guztiak zuzendu eta koordinatzea; ikastetxeko ekitaldi akademikoetarako eta kide anitzeko organoen bileretarako dei egitea eta horietan mahaiburu izatea.

c) Gastuak egiteko baimena ematea, ikastetxearen urteko kudeaketa-programarekin bat etorriz, eta ordainketak agintzea.

d) Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 63. artikulua aipatzen dituen obra, zerbitzu- eta hornidura-kontratazioak egitea.

e) Ziuertagiriak eta agiri ofizialak ikus-onestea.

f) Ikastetxearen jardunari eragiten dioten arauak, xedapenak, jardura-proiektu eta -programak eta erabakiak betearaztea.

g) Ordezkaritza-organo gorenari proposatzea zuzendaritza-taldeko kideen izendapena eta kargu-uztea.

h) Ikastetxeari atxikitako langile guztien buruzagitzatza izatea, eta dagozkion ebazpenak hartzea, ezar daitzekoen arauen arabera.

i) Familia, erakunde eta organismoekiko elkarlana bultzatzea, ikastetxea bere inguruarekin harremanetan jar dadin errazte aldera, eta eskola-giro ona sustatzea, ikasteari eta ikasleak jakintzetan eta balioetan erabat prestatzea erraztuko duen jardura orori mesede egingo diena.

j) Ikastetxeko bizikidetzaren mesedetan aritzea, gatazka konpontzea eta ikasleei dagozkien diziplina-neurri guztiak ezartzea, hezkuntza-administrazioak ezarriko dituen arauarekin bat etorriz, eta ikastetxearen antolakuntza- eta jardura-araudiak finkatutako irizpideen arabera.

k) Ikastetxearen kalitatea hobetzeko planak sustatzea, baita hezkuntza-berrikuntza eta -ikerketak proiektuak ere.

l) Ikastetxearen barne-ebaluaziorako prozesuak bultzatzea, eta kanpoko ebaluazioei laguntzea.

m) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko organoek eskuordetutako gainerako eskumenak, beste arau batzuek emandakoak, eta ikastetxearen antolakuntza- eta jardura-araudiak esleitutakoak.

1.2.- Ikasketaburuaren eskumenak.

Ikasketaburua da organo bat, curriculum- edo ikasketak-proiektua eta ikasketak-jardueren programa gauzatzeko koordinatu eta zuzenean zaintzeko ardura duena. Ondoko eskuduntzak dagozkio, ikastetxeko zuzendaritza-taldeak onetsitako irizpideekin bat etorriz:

a) Ostentat la representación oficial del centro, sin perjuicio de las atribuciones de las demás autoridades educativas.

b) Dirigir y coordinar todas las actividades del centro; convocar y presidir los actos académicos y las reuniones de los órganos colegiados del centro.

c) Autorizar los gastos, de acuerdo con el programa anual de gestión del centro, y ordenar los pagos.

d) Realizar las contrataciones de obras, servicios y suministros a las que se refiere el artículo 63 de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca.

e) Visar las certificaciones y documentos oficiales.

f) Hacer cumplir las normas, disposiciones, proyectos y programas de actuación y los acuerdos que afecten a la actividad del centro.

g) Proponer al órgano máximo de representación el nombramiento y cese de los miembros del equipo directivo.

h) Ejercer la jefatura de todo el personal adscrito al centro y adoptar las resoluciones que correspondan de acuerdo con las normas aplicables.

i) Impulsar la colaboración con las familias, con instituciones y con organismos que faciliten la relación del centro con el entorno, y fomentar un clima escolar que favorezca el estudio y el desarrollo de cuantas actuaciones propicien una formación integral en conocimientos y valores de los alumnos.

j) Favorecer la convivencia en el centro, resolver los conflictos e imponer todas las medidas disciplinarias que correspondan a los alumnos, de acuerdo con las normas que establezca la Administración educativa y en cumplimiento de los criterios fijados en el Reglamento de Organización y Funcionamiento del centro.

k) Promover planes de mejora de la calidad del centro, así como proyectos de innovación e investigación educativa.

l) Impulsar procesos de evaluación interna del centro y colaborar en las evaluaciones externas.

m) Las demás competencias que se deleguen por los órganos del Departamento de Educación, Universidades e Investigación; las que se le atribuyan por otras normas y las que se le asignen en el Reglamento de Organización y Funcionamiento del centro.

1.2.- Competencias del Jefe de Estudios:

El Jefe de Estudios es el órgano encargado de coordinar y vigilar directamente la ejecución del proyecto curricular y del programa de actividades docentes, correspondiéndole las siguientes atribuciones, de conformidad con los criterios aprobados por el equipo directivo del centro:

- a) Izaera akademikoko jarduerak koordinatzea.
- b) Ordutegi akademikoak egitea eta betetzen direla begiratzea.
- c) Irakasle bakoitza ikastetxeko unitate bati edo batzuei atxikitzea, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 36.2.f artikulua araberara.
- d) Kudeaketa Integralaren eta Estrategiaren alorreko zuzendariarekin koordinatuz, honako hauek idaztea: ikastetxeko prestakuntza-plana, eta prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuetatik eratorritako prestakuntza-ekintzak.
- e) Ikastetxeko ikasketa-jardueren planaren eta prestakuntza-planaren jarraipena egitea.
- f) Arauzko xedapenek eta ikastetxearen antolakuntza- eta jarduera-araudiak emandako gainerako eginkizun guztiak.

1.3.– Idazkariaren eskumenak

Idazkariak ondoko eskumenak izango ditu:

- a) Ikastetxeko ordezkari-organoren, zuzendaritza-taldearen eta klaustroaren bileren gai-zerrendan sartu beharreko gaiak prestatzea, organo horien buruak esandakoaren arabera, eta organo horien bileren aktak egitea.
 - b) Ikastetxearen aktak, espedienteak eta dokumentazioa zaintzea, eta ikastetxeko organoen esku edukitzea. Ikastetxeko ikasmateriala zaintzea.
 - c) Zuzendariaren oniritziarekin, ikastetxeko egintza edo ebazpen eta akordio oro ziurtatzea, baita ikastetxeko aurrekari, liburu eta dokumentuak ere.
 - d) Arauzko xedapenek eta ikastetxearen antolakuntza- eta jarduera-araudiak emandako gainerako eginkizun guztiak.
- #### 1.4.– Ekonomia eta Administrazio alorreko zuzendariaren eskumenak.
- a) Aurrekontua prestatzea. Aurrekontu hori uztailearen 28ko 196/1998 Dekretuak xedatuaren arabera egin beharko da.
 - b) Ikastetxearen kontabilitatea kudeatzea, eta ondokoak egitea: Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 59. artikulua aipatzen duen beharren zerrenda, ikastetxeko aurrekontua jasotzen duen dokumentua, Lege beraren 57. artikulua araberara, baita aurrekontuaren likidazio-kontuari dagokiona ere; betiere, horiek guztiak egin eta onartzeko eskumena duten organoen jarraibideei men eginez. Prestamen-egintzak egingo dizkie kontratazioei, materiala erosteko proposamenei eta inbertsioei; ikastetxeko dotazioen inbentarioa egingo du, eta ikastetxeko instalazioen mantentze-lanak gainbegiratu ditu.

- a) Coordinar las actividades de carácter académico.
- b) Confeccionar los horarios académicos y vigilar su cumplimiento.
- c) Asignar a cada profesor a una unidad o unidades del centro, conforme a lo dispuesto en el artículo 36.2.f de la Ley 1/1993, de 19 de febrero de 1993, de la Escuela Pública Vasca.
- d) Redactar en coordinación con el Director del Área de Gestión Integrada y de la Estrategia el plan de formación del centro y las acciones formativas derivadas de los proyectos de formación e innovación.
- e) Realizar el seguimiento del plan de actividades docentes y del plan de formación del centro.
- f) Cuantas otras funciones que las disposiciones normativas y el reglamento de organización y funcionamiento le encomienden

1.3.– Competencias del Secretario:

El Secretario tendrá las siguientes competencias:

- a) La preparación de los asuntos que hayan de ser incluidos en el orden del día de las sesiones del órgano máximo de representación, del equipo directivo del centro y del claustro, de conformidad con lo que establezca el presidente de dichos órganos y levantar acta de las sesiones de estos órganos.
- b) Custodiar las actas, los expedientes y la documentación propia del centro, y tenerla a disposición de sus órganos. Custodiar el material didáctico del centro.
- c) Certificar, con el visto bueno del director, todos los actos o resoluciones y los acuerdos del centro, así como los antecedentes, libros y documentos propios del centro.
- d) Cuantas otras funciones que las disposiciones normativas y el reglamento de organización y funcionamiento del centro le encomienden.

1.4.– Competencias del Director del área económico-administrativa:

- a) Elaborar el presupuesto, que deberá de realizarse de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto 196/1998, de 28 de julio.
- b) Gestionar la contabilidad del centro elaborando la relación de necesidades a que se refiere el artículo 59 de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca y el documento en el que se contenga el presupuesto del centro, de acuerdo al artículo 57 de la citada Ley, así como el correspondiente a la cuenta de liquidación del mismo, bajo las orientaciones de los órganos competentes para su elaboración y aprobación. Realizará los actos preparatorios de las contrataciones y de las propuestas de adquisición de material, así como de las inversiones; elaborará el inventario de las dotaciones del centro y supervisará el mantenimiento de sus instalaciones.

c) Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 57. eta 54. artikuluek zerrendatzen dituzten gainerako diru-sarreraren zenbatespena egitea.

d) Administrazio eta zerbitzuetako langileen egin-kizunak eta jarduerak kudeatzea.

e) Arauzko xedapenek eta ikastetxearen antolakuntza- eta jarduera-araudiak emandako gainerako eginkizun guztiak.

1.5. Kudeaketa Integralaren eta Estrategiaren alo-
rreko zuzendariaren eskumenak.

a) Plan estrategikoaren eta urteko planaren burutzapena kudeatzea, baita planen jarraipena egitea ere, plannok onartu ondoren.

b) Produkzio-inguruaren beharrak aztertzea, ikastetxearen estrategiak behar horiei erantzuna ematera bideratzeko.

c) Plan estrategikoak eta urteko planak ezarritako helburuak lortzeko lankidetzak-hitzarmenen zirriborroak prestatzea.

d) Ikastetxearen berrikuntza-proiektuez arduratuko da, ikasketaburuarekin koordinatuz.

e) Taldeetako arduradunak koordinatzea.

f) Ikastetxearen kudeaketa aurreratuko ereduaren jarraipenaz arduratuko da.

g) Arauzko xedapenek eta ikastetxearen antolakuntza- eta jarduera-araudiak emandako gainerako eginkizun guztiak.

2. Hona lanbide-heziketako ikastetxe integraleko partaidetza-organoak:

a) Eskola Kontseilua.

b) Aholku Kontseilu Teknikoa.

c) Klaustroa.

d) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezar ditzan beste guztiak.

2.1.- Eskola Kontseiluaren eskumenak.

Hezkuntza Sailaren mendeko Lanbide-heziketako Ikastetxe Integratuaren Eskola Kontseiluaren eskumenak Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 31.2 artikulua ezarritakoak izango dira. Era berean, lanbide-heziketako itunpeko ikastetxe integratuaren Eskola Kontseiluaren eskumenak Hezkuntzarako Eskubidea Arautzeko uztailaren 3ko 8/1985 Legearen 56. eta 57. artikulua ezarritakoak izango dira.

2.2.- Aholku Kontseilu Teknikoaren eskumenak.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak agindu batez ezarriko ditu lanbide-heziketako herri-ikastetxe integratuaren Aholku Kontseilu Teknikoaren eskumenak. Nolanahi ere, Aholku Kontseilu Teknikoak ondoko eskumenak izango ditu:

c) Elaborar la estimación de los demás ingresos que se enumeran en el artículo 57 y 54 de la Ley de la Escuela Pública Vasca.

d) Gestionar las funciones y actividades del Personal de Administración y Servicios.

e) Cuantas otras funciones que las disposiciones normativas y el reglamento de organización y funcionamiento del centro le encomienden.

1.5.- Competencias del Director del área de Gestión Integrada y de la Estrategia:

a) Gestionar la ejecución del Plan Estratégico y el Plan Anual y el seguimiento de los mismos una vez aprobados.

b) Analizar las necesidades del entorno productivo para orientar las estrategias del centro con el fin de dar respuesta a las mismas.

c) Elaborar los borradores de los convenios de colaboración para el logro de los objetivos establecidos en el Plan Estratégico y el Plan Anual.

d) Se responsabilizará de los Proyectos de Innovación del centro en coordinación con el Jefe de Estudios.

e) Coordinar a los responsables de los diversos equipos.

f) Se responsabilizará del seguimiento del modelo de gestión avanzado del centro.

g) Cuantas otras funciones que las disposiciones normativas y el reglamento de organización y funcionamiento del centro le encomienden.

2.- Los órganos de participación de un Centro Integrado de Formación Profesional son los siguientes:

a) Consejo Escolar.

b) Consejo Técnico Asesor.

c) Claustro.

d) Cuantos otros pueda determinar el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

2.1.- Competencias del Consejo Escolar:

Las competencias del Consejo Escolar de un Centro Integrado de Formación Profesional dependiente del Departamento de Educación serán las establecidas en el artículo 31 punto 2 de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca. Así mismo, las competencias del Consejo Escolar de un Centro Integrado de Formación Profesional concertado serán las establecidas en los artículos 56 y 57 de la Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, Reguladora del Derecho a la Educación.

2.2.- Competencias del Consejo Técnico Asesor:

Las competencias del Consejo Técnico Asesor de los Centros Integrados de Formación Profesional públicos serán las que al efecto y mediante Orden establezca el Departamento de Educación, Universidades e Investigación. En todo caso serán competencias del Consejo Técnico Asesor:

a) Hirurteko plan estrategikoa, urteko jarduera-plana eta ikastetxeak bere jarduerak nola betetzen dituen neurtu eta baloratzeko bide ematen duen informazio guztia ezagutzea, baita plan horiek ezartzen laguntzea ere.

b) Lanbide-heziketako ikastetxe integratuaren teknologia- eta berrikuntza-jarduerak eguneratu eta hobetzeko berariazko gomendioak ematea.

c) Aginte-organoari laguntza ematea ikastetxeko gai garrantzikoetan, halakorik eskatzen bazaio, aholkularitza-talde espezializatu den aldetik.

d) Aholkularitza ematea arautu gabeko prestakuntzaren diseinu, ezarpen eta garapenari dagokienez, baita horiek betetzen direla egiaztatzea ere.

2.3.- Irakasleen Klaustroaren eskuduntzak.

Irakasleen Klaustroak ondoko eskuduntzak izango ditu:

a) Ikastetxearen curriculum- edo ikasketa-proiektua eta ikasketa-jardunen programa egin eta onartzea, Ordezkaritza Organo Gorenak/Eskola Kontseiluak irizpe-na eman ondoren; izan ere, azken organo horrek bere iritzia emango du proiektu eta programa horiek ikastetxearen proiektu estrategikoan jasotako ardetarauekin bat ote datozen.

b) Irakaskuntza-jardueren programaren betetze-mailaren berri ematea ordezkaritza-organo gorenari, urteko txostena egin dezan.

c) Ikasleak ebaluatu eta berreskuratzeko lanari buruzko irizpideak ezarri eta koordinatzea.

d) Ikasleen orientazio- eta tutoretza-eginkizunak planifikatzea eta zuzentzea.

e) Ikastetxean garatu behar diren pedagogia-esperimentazio edo -ikerketarako ekimenak sustatzea.

f) Bere jarduera-arauak onartzea.

g) Irakasleen prestakuntzari dagozkionetan, prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpokoan eta osagarritzkoen egitarauari buruzko txostena egitea, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 36.3 artikulua erabaki bezala, eta ordezkaritza-organo gorenak onartu baino lehen.

h) Bere ordezkaritza aukeratzea ordezkaritza-organo gorenarako.

i) Hezkuntza-administrazioak emandako beste edozein.

6. artikulua.– Lanbide-heziketako herri-ikastetxe integratuaren autonomia.

Lanbide Heziketako herri-ikastetxe integratuari in-darreko legeriaren esparruan bermatzen zaie autonomia, antolamendu, pedagogia, ekonomia, finantza eta kudea-

a) Conocer el Plan Estratégico trienal, el Plan Anual de actividades y toda aquella información que permita medir y valorar el desempeño de las actividades del centro, así como colaborar en la implementación de los referidos planes.

b) Emitir recomendaciones específicas que contribuyan a la actualización y mejora de las actividades tecnológicas y de innovación del Centro Integrado de Formación Profesional.

c) Apoyar al Órgano de Gobierno en aquellos aspectos de orden sustantivo del centro en los cuales le sea solicitada su participación como grupo asesor especializado.

d) Asesorar en el diseño, implantación y desarrollo de la Formación no Reglada y verificar su ejecución.

2.3.- Atribuciones del Claustro de Profesores:

El Claustro de profesores tendrá las siguientes atribuciones:

a) Elaborar y aprobar el proyecto curricular del centro y el programa de actividades docentes, previo informe del Órgano Máximo de Representación/Consejo Escolar, que se pronunciará sobre la adecuación de aquéllos a las directrices contenidas en el proyecto estratégico del centro.

b) Informar sobre el cumplimiento del programa de actividades docentes al órgano máximo de representación, para la elaboración por parte de éste de la memoria anual.

c) Fijar y coordinar criterios sobre la labor de evaluación y recuperación de los alumnos.

d) Planificar y dirigir las funciones de orientación y tutoría del alumnado.

e) Promover iniciativas en el ámbito de la experimentación o investigación pedagógica a desarrollar en el centro.

f) Aprobar sus normas de funcionamiento.

g) Informar el programa de actividades de formación, extraescolares y complementarias en lo referente a la formación del profesorado, elaborado conforme a lo dispuesto en el artículo 36.3 del Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca y antes de su aprobación por el órgano máximo de representación.

h) Elegir sus representantes en el Órgano Máximo de Representación del centro.

i) Cualquiera otras que le sean atribuidas por la Administración educativa.

Artículo 6.– Autonomía de un Centro Integrado Público de Formación Profesional.

Los Centros Integrados de Formación Profesional públicos tienen garantizada la autonomía de organización, pedagógica, económico-financiera y de gestión en el

ketaren alorretan, ondoko eremuak gutxienez kontuan hartuta:

- a) Zuzendaritza.
- b) Lanbide-heziketako Ikastetxe Integratuen kudeaketa-eredu berria.
- c) Giza-baliabideen kudeaketa.
- d) Lanbide-heziketako ikastetxe integratuen garapen pedagogikoa.
- e) Ekonomia-, finantza- eta administrazio-kudeaketa.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko azaroaren 23an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate, eta Ikerketa sailburua,
MARÍA ÁNGELES IZTUETA AZKUE.

Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Zk-6192

AGINDUA, 2004ko urriaren 4koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Leioako (Bizkaia) «Gaztelueta» Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titularitatea aldatzeko baimena ematen duena.

Leioako (Bizkaia) «Gaztelueta» Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titularitatea aldatzeko baimena eskatuz ikastetxe horren erakunde titularraren ordezkariak hasitako espedientea aztertu da.

Espediente horri Hezkuntzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak egin dizkio izapideak, indarreko arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

marco de la legislación vigente. Además ésta autonomía se desarrollará reglamentariamente, como mínimo en los siguientes ámbitos:

- a) Función directiva.
- b) Nuevo modelo de gestión de los Centros Integrados de Formación Profesional.
- c) Gestión de recursos humanos.
- d) Desarrollo pedagógico en los Centros Integrados de Formación Profesional.
- e) Gestión económico-financiera y administrativa.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 23 de noviembre de 2004.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ÁNGELES IZTUETA AZKUE.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Nº-6192

ORDEN de 4 de octubre de 2004, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se autoriza el cambio de titularidad del centro privado de Educación Primaria y Secundaria «Gaztelueta» de Leioa (Bizkaia).

Examinado el expediente iniciado por el representante de la entidad titular del centro privado de Educación Primaria y Secundaria «Gaztelueta» de Leioa (Bizkaia), en solicitud de autorización para el cambio de titularidad de dicho centro.

Resultando que el citado expediente ha sido tramitado por la Delegación Territorial de Educación de Bizkaia, que se ha unido al mismo la documentación exigida por la normativa vigente y que ha sido informado por los organismos competentes en la materia.